



UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROA
BIZKAIKO ESPERIENTZIA-GELETAKO PRESTAKUNTZA EGUNERATZEKO
IKASTAROA I (8. ED)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2023/2024

ARLOA: Arteak eta Humanitateak

KREDITUAK: 4,5 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 81,00 € (Asegurua: 4 €, galdetu)

ARDURADUN AKADEMIKOA: Mikel Bilbao Salsidua

AURKEZPENA

Bizkaiko Esperientzia Geletako Prestakuntza Eguneratzeko Ikastaroak humanitateen arloarekin lotutako 12 irakasgairen (sei lauhileko bakoitzean) eskaintzan oinarritzen dira. Irakasgai horiek, 2,25 kreditukoak bakoitza, hiru bloketan edo prestakuntza-ibilbidetan eskaintzen dira, eta ikasleen etengabeko prestakuntzan lagundu nahi dute. Ikasle guztiek bi irakasgaitan matrikulatu beharko dute nahitaez, eta lehen lauhilekoari dagozkion sei irakasgaiak hauek dira: - La radio: otra forma de comunicar - Un siglo de cine en Europa - El ABC del cine español. De Almodóvar a Zulueta, pasando por las tres B: Buñuel, Berlanga y Bardem - Una mirada a oriente. Arte japonés - Para disfrutar y entender mejor la Música - Mujeres artistas: del Renacimiento al siglo XIX

ZURE BILA GABILTZA

Esperientzia Geletako ikaslea bazara, Giza Zientzietako titulua lortuta eta ikasten segitzeko prest bazaude artearen, zinemaren, filosofiaren, literaturaren edo musikaren arloetan, hauek dira behar dituzun ikastaroak.

IRTEERA PROFESIONALAK

Bizkaiko Esperientzia Geletako Prestakuntza Eguneratzeko Ikastaroek ikaslearen etengabeko prestakuntzan laguntzen dute, eta, aldi berean, etengabeko ikaskuntza-eredua bultzatu nahi dute eskaintza askotariko eta aldakor baten bidez.



IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2023/09/25etik 2024/01/19ra

EMATEKO TOKIA: Bizkaiko Esperientzia Gelak

HIZKUNTZA: Gaztelania

INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Bizkaiko Esperientzia Gelak

HELBIDEA: Espainiako Bankoa, 2. 48003 Bilbo

TELEFONOA: 94 601 7850

POSTA ELEKTRONIKOA: secretaria.aexperiencia.bizkaia@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.